

# **ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA**

## **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea hau da: **ORDIZIAKO HAUR ETA NERABE ETORRI BERRIEN BERTAKOTZE PROGRAMA** zerbitzua ematea, baldintza teknikoen agirian jasotako zehaztasunen arabera.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

### **2. EPEA**

Zerbitzua burutzeko epea hau izango da: 2 urte. Hala ere, kontratua urtero luzatu ahal izango da, Euskara Zerbitzuak aurreko urteko balorazio ona egiten badu; baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezingo da izan lau urtetik gorakoa.

Kontratuaren exekuzio epea 2015eko iraileko hirugarren asteko astelehenetik aurrera hasiko da.

Kontratuaren iraunaldiko urte bakoitza urte bakoitzeko ekainaren bigarren asteko ostiralean amaituko da.

Hori horrela, kontratuaren iraunaldiko jatorrizko 2 urteko epea 2017ko ekainaren bigarren asteko ostiralean amaituko da. Ondoren, urteroko luzapenak onartuko balira, kontratuaren gehienezko iraunaldia, luzapenak barne, 2019ko ekainaren bigarren asteko ostiralean amaituko da.

Zerbitzuak epe horretan ematen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

### **3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Kontratuaren aurrekontua hau izango da: 27.685,95 € gehi 5.814,05 € BEZari dagozkionak (33.500,00 euro guztira, urteko). Lizitatzailleek aurrekontua hobetu dezakete.

### **4. FINANTZABIDEAK**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Halaber, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

### **5. NOLA ORDAINDU**

Administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa. Ordainketa honela egingo da:

Esleipendunak hilabete bakoitzeko lehen 5 egun naturaletan aurkezt beharko du aurreko hilabetean eman dituen zerbitzuei dagokion faktura, Udalak legez ezarritako ordaintzeko gehieneko epeak errespetatu beharko dituelarik.

## **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, SPKLTBaren 89. Artikuluak xedatua jarraiki.

## **7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabili daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

## **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan

dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK**

Kontratastak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

**Kontratu hau subrogatu egin beharko da**, eta esleipendunak enplegu-emaille moduan subrogatu beharko du plegu hauetako III. Eranskinean adierazitako berariazko lan-harremanetan.

## **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratastaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratastarentzat.

## **12. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA**

Zerbitzua eman eta, gehienez, 30 egun natural pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da.

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-epetik jarri behar.

### **13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

#### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratastak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

#### **B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratastak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

#### **C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA**

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

### **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK**

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK**

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ESLEIPENAREN PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

**-ESKAINZA EKONOMIKOA (*gehienez 60 puntu*)**

**- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN PROIEKTUA (*gehienez 40 puntu*).**

Aipatu irizpideen artean, balio-judizio baten arabera izan eta automatikoki antzematen direnak baino lehenago balioetsiko direnak, honako hauek dira

**1) EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN PROIEKTUA (*gehienez 40 puntu*).**

Puntu honetan, besteak beste, atal hauek hartuko dira kontuan:

**a) Oinarriak eta proiektuaren helburuak**

- 1. Helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian erlazionatzea.**
- 2. Zerbitzuko hartzaileen adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea.**

**b) Lan metodologia**

- 1. Zuzeneko arretan jarduera nola landuko den zehaztea (aisia hezitzaile, parte hartzea adieraztea, sorkuntza, informazioa, orientazioa, bide-laguntza).**
- 2. Eskaintza planifikatzeko, ebaluatzeko, koordinazio maila ezberdinen planteamendu egoki eta zehatza azaltzea.**
- 3. Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea.**

**c) Proposamena udalerrriaren errealitatera egokitzea.**

**1. Herriko errealitatea, baliabidea, elkarreak... ezagutza eta haiekiko elkarlana eta koordinazio proposamena.**

**2. Auzo zein herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak**

**d) Proiektuaren kalitatea bere osotasunean.**

**Automatikoki antzematen diren irizpideak, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira**

**1) ESKAINTZA EKONOMIKOA (gehienez 60 puntu)**

Lizitatuzaileek aurkezturiko eskaintzaren proposamen ekonomikoari 60 puntu emango zaizkio gehienez.

Eskaintza merkeenari 60 puntu emango zaizkio. Gainerako eskaintzei, hau da, lizitazioko oinarri-aurrekontuaren eta eskaintza merkeenaren artean daudenei, formula hau aplikatuko zaie:

$$P = 60 - \Delta\%$$

P honakoa izango da: balorazioaren puntuak.

$\Delta\%$  honakoa izango da: Aztertutako eskaintzaren igoera (ehunekoetan), eskaintza merkeenarekiko, bigarren dezimalaren arabera borobilduta.

$$\Delta\% = \frac{\text{Aztertutako eskaintza} - \text{eskaintza merkeena}}{\text{Eskaintza merkeena}} \times 100$$

Lizitatuzaileek eskaintza ekonomikoarekin batera, eskaintzaren desglosea aurkeztu beharko du ondorengo atalen baitan:

-Giza baliabide kategori bakoitzeko kostu desglosatua.

- Gastu orokorrak.
- Etekin industrialia (hala badagokio).
- Dagokion BEZa.

Eskaintzaren desglose hau ez da baloratuko, soilik, zerbitzu kontratu honen gastuen jarraipena egitea izango du helburu. Desglose hau kontratuaren exekuzioaren gastuen kontrolerako erabiliko da eta lizitatzailleak aurkeztutako desglose honi lotuta geratuko dira.

Eskaintzak neurritz gaineakoak edo anormalak direla uste izateko kontuan hartuko da prezioaren esleipenaren irizpidea, aurkeztu diren baliozko eskaintzak kontuan izanda eta ondorengo arauen arabera:

Horrela. Neurritz kanpoko edo ausarkeriatzat joko dira honako ustezkoak betetzen dituztenak:

- 1.** Lizitatzaille bakarrak parte hartzen duelarik, lizitazioko oinarritzko aurrekontuarekiko gutxienez portzentajezko 25 unitate baino baxuagoa denean.
- 2.** Bi lizitatzaillek parte hartzen dutelarik, beste eskaintzarekiko gutxienez portzentajezko 20 unitate baino baxuagoa dena.
- 3.** Hiru lizitatzaillek parte hartzen dutelarik, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko gutxienez portzentajezko 10 unitate baino baxuagoak direnak. Hala ere, batez besteko hori zehazteari dagokionez, zenbateko handiena agertzen duen eskaintza baztertu egingo da, batez besteko horrekiko gutxienez portzentajezko 10 unitate baino handiagoa denean. Edonola ere, portzentajezko 25 unitatetik gorako behea neurritz kanpokotzat joko da.
- 4.** Lau lizitatzaille edo gehiagok parte hartzen dutelarik, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko gutxienez portzentajezko 10 unitate baino baxuagoak direnak. Hala ere, horien artean batez besteko hori gutxienez portzentajezko 10



unitatetan gainditzen duten eskaintzarik bada, beste batez bestek obat kalkulatu da aipatutako egoeran ez dauden eskaintzen artean. Edonola ere, gainerako eskaintzak hiru edo gutxiago badira, batez besteko berria zenbateko baxueneko hiru eskaintzen artean kalkulatu da.

5. Salbuespen gisa, betiere kontratuaren objektua eta merkatuaren gorabeherak kontuan izanik, Kontratazio Organoak, behar bezala arrazoituta, heren batean murriztu ahal izango ditu baldintzen orriotako aurreko ataletan finkatutako ehunekoak.

6. Eskaintza bati desorekatua dela irizteko, Kontratazio Mahaia enpresaren kaudimena eta aurkeztutako eskaintza hartu ahal izango ditu kontuan.

Berdinketa gertatuz gero, prezioari dagokion balorazio irizpidean puntuaketa handiena lortu duen eskaintzari esleituko zaio kontratua.

## 17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Ordiziako Udaleko Alkatea.

- Batzordekideak:

Udaleko Euskara zerbitzuko funtzionario bat.

Gazteria saileko teknikaria.

Udal Idazkaria

Udal kontuhartzailea.

- Mahaiko idazkaria: Administrazio Orokorreko Teknikaria.

## **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 20.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako Idazkaritza. ORDUAK: 08:00 - 15 : 00 EPEA: 15 Egun naturaletan, lizitazio honen iragarkia GIPUZKOAKO Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, 15 egun naturaleko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da:

<http://www.ordizia.eus/>

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

## **20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA**

Lizitatuzaileek, ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATUA EGITEKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEKO ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA AURKEZTU BEHARKO DUTE SOILIK (ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULAR HAUETAKO I. ERANSKIN-EREDUAN OINARRITUTA), ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATUA EGITEKO LEGEZ EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA ADIERAZIZ.

Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko unea erabakigarria proposamenak aurkezteko epea bukatzen denekoa izango da.

Esleipen-proposamena jasoko duen lizitzaileak, kontratua esleitu aurretik, agiri honetako 21.5 klausulan eskatzen diren agiriak baliozkoak direla bermatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean. HORTAZ, PROPOSAMENAK AURKEZTEKO UNEAN EZ DA BEHARREZKOA IZANGO AGIRI HONETAKO 21.5 KLAUSULAN ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA. NAHIKOA IZANGO DA ARESTIAN AIPATUTAKO ERANTZUKIZUNEN AITORPENA AURKEZTEA 1. ERANSKINEKO EREDUARI JARRAIKI.

Aurrekoarekin bat, lizitzaileek, ERANTZUKIZUNEN AITORPEN HORREZ GAIN, BI GUTUN-AZAL ITXI (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, ez besterik, eta horietako bakoitzean honako hau jarriko dute: "..... PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean, honakoak adieraziko dira: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer kargu duen sinadura eman ahal izateko. Bi gutun-azalek ere sinaturik egon beharko dute.

**ERANTZUKIZUNEN AITORPENA EZ DA GUTUN-AZALETAN SARTUKO. EZEIN KASUTAN EZ DA ERANTZUKIZUNEN AITORPENA A edo B GUTUN-AZALETAN SARTUKO.**

**“A” gutun-azalaren azpititulua “BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK” izango da, eta bertan, balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira, plegu honen 16. baldintzan adierazitakoak.**

Lizitzaileek emango den zerbitzuari buruzko proiektu bat jaso beharko dute gutun-azal horretan, eta proiektuaren oinarriak eta helburuak, lan-metodologia eta proposamena herriaren errealitatera nola egokitzen den zehaztuko dituzte. Halaber, eskaintzen den proiektuaren kalitatea deskribatu beharko dute.

Proiektuak **“EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN PROIEKTUA”** balorazio-irizpidea baloratzeko balioko du, agiri honetako 16. klausulan jasoa.

**“B” gutun-azalaren azpititulua “DIRU PROPOSAMENA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK” izango da, eta agiri hauek jasoko dira:**

a) Administrazio-baldintza partikularren agiri honetako II. Eranskina, behar bezala beterik.

Lizitatuzaileek eskaintza ekonomikoarekin batera, eskaintzaren desglosea aurkeztu beharko du ondorengo atalen baitan:

-Giza baliabide kategori bakoitzeko kostu desglosatua.

-Gastu orokorrak.

-Etekin industrialak (hala badagokio).

-Dagokion BEZa.

Eskaintzaren desglose hau ez da baloratuko, soilik, zerbitzu kontratu honen gastuen jarraipena egitea izango du helburu. Desglose hau kontratuaren exekuzioaren gastuen kontrolerako erabiliko da eta lizitatuzaileak aurkeztutako desglose honi lotuta geratuko dira.

## **21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATUA EGITEKO LEGEZ EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA DIOEN ADIERAZPEN ERANTZULEA EGIAZTATZEA (Administrazio klausulen pleguko 21. klausulako 5. puntuan ezarritako baldintzak).

2º. "A" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA.

Aurretik zehaztutako ekintza egin ondoren, mahaiak publikoki A kartazala irekiko du balio-judizio baten arabera irizpideen baitan.

3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA.

"A" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "B" kartazala irekiko da publikoki kontratatzailearen profileen adierazitako egun eta orduan.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

#### 4. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurrigabetzat jotzen denean lizitatzaileri (edo lizitatzaileri, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzailiak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileri egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarriaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

#### 5. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI

Aurreko pausuak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar eguneko epean, lehen sailkatuari honako agiriak aurkezteko eskaera egingo zaio:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Bestalde, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuak dituela dioten egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek betetik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lizitzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak.

e.1. Enpresariaren finantza eta ekonomia kaudimena honela frogatu ahal izango da:

e.1.1 Kontratuak xede duen esparruan urtean izan duen negozio-bolumena, kontratuaren baldintzetan eskatutako zenbatekoaren berdina edo hortik gorakoa.

Zenbateko horrek lizitaziorako oinarritzko aurrekontu gisa agiri honetan ezarritako bera, gutxienez, izan beharko du.

e.2 Lizitatuzaileen fidagarritasun teknikoa ondoren aipatzen diren bitartekoen bidez bermatuko da, eta horiek guztiak ziurtatu beharko dituzte:

e.2.1 Azken bost urteetan emandako zerbitzu edo egindako lan garrantzitsuenen zerrenda bat, honako hauek barru hartuko dituena: zerbitzu edo lanen zenbatekoa, eta datak eta jasotzailea, publikoa nahiz pribatua. Hartzailea sektore publikoko entitate bat bada, emandako zerbitzuak edo egindako lanak horretarako eskumena duen organoak egindako ziurtagiri bidez bermatuko dira; hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiria aurkeztu behar da, edo ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitortpena aurkeztu behar da; bere kasuan, ziurtagiri horien berri emango dio eskumena duen agintariak kontratazio-organoari.

Horri loturik, gutxienez zerbitzu BAT edo gehiago eman izana eskatuko da (kontratu honen xede den zerbitzuaren antzekoa), eta horietako bakoitzak gutxienez agiri honetan lizitaziorako oinarritzko aurrekontu gisa ezarritako zenbatekoaren berdina izan beharko du (gutxienez zerbitzu bat aipatutako 5 urteko epean).

e.2.2. Tituluak

Agindu teknikoen agirian zehaztutako zerbitzua emango duten langileek irakasle-ikasketen titulua edo gizarte-hezkuntzako diploma eduki beharko dute, edo hezkuntza berezian espezializatuta egon beharko dute edo gizarte integrazioko goi mailako zikloa gainditua.

Horrez gain, eta euskararen ezagutzari dagokionez, zerbitzua emango duten langileek Europako Erreferentzia Esparruko C1 maila eduki beharko dute.

f) Enpresari-multzo bat lizitaziora Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa aurkezten bada, elkarte hori osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko ahalmena eta kaudimena bermatu beharko ditu, aurreko klausuletan ezarritakoa betez, eta, halaber, esleipena eskuratuz gero, aldi baterako enpresa hori formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko du. Era berean, proposamenean argi adierazi beharko dute enpresa-elkarteko bakoitzak zer lan zehatz egingo duen, guztien kaudimena zehazteko eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende



jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, bai eta lizitatzaileri legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela jakinarazteko adierazpena ere, kasua hori balitz.

h) Jardunbide honetatik sortuko diren jakinarazpenak jasotzeko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBren 151.4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta ondorioetarako.

Aurreko a), b) eta e) ataletan zehaztu diren eskakizunak egiaztatzeko, hiru modu daude: EAE Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztea, Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztea, edo sailkapeneko ziurtagiri komunitarioa aurkeztea (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuko 84. artikulua adierazten duen moduan). Ziurtagiri horrez gain, lizitatzailerikaren erantzukizuneko aitortpena ere aurkeztu beharko da, adierazteko ziurtagiri horretan islatzen diren egoerak ez direla aldatu.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoa izan daiteke.

i) Behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

Eskaera aipatutako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailerik bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lehiatzaileari, eskaintzak aztertzerakoan jaso duten ordenaren arabera.

## **22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileri egingo dio esleipena.

Esleipenaren berri lizitatzailerik guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Gutxienez 150.000,00 euroko estaldura duen eta zerbitzutik erator daitekeen edozein inguruabar estaliko duen erantzunkizun zibileko aseguru-poliza eta hori ordaindu izanaran egiaztagiria.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Lagislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **24. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

#### **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

....., 20....(e)ko ..... aren ....(a)

**I. ERANSKINA. ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATUA EGITEKO LEGEZ EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA (KLAUSULETAKO PLEGUEN 21.5 KLAUSULAN EZARRITAKOA, BEHIN BETIKO BERMEARI DAGOKIONA IZAN EZIK).**

Izen-abizenak.....  
.....helbidea ..... posta kodea  
..... , NAN zenbakia ....., telefonoa ....., helbide  
elektronikoa ..... , zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.  
Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak  
..... Helbidea  
..... Posta kodea ....., telefonoa .....  
NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera)  
..... kontratatzeko  
asmoz .....k dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte  
hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1.- Lizitatzailleak Administrazioarekin kontratua egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela eta esleipendun izateko proposamena ateratzen bada kontratuaren esleipena egin aurretik kontratazio organoari eskatutako agiriak dituela eta baliozkoak direla egiaztatuko duela, 3/2011 Errege Dekretuaren 146. artikuluan ezarritakoaren arabera, nortasun juridikoari eta ordezkariari buruzkoak, eta hala badagokio, sailkapena/kaudimena eta zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen dituztenak aurkeztuz eta pleguetan eskatzen diren gainerako agiriak aurkeztuz.

2. Kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere ezagutzen ditudala. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3. Ordezkatzen dudan enpresak bere irekierarako, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....n, 20.....(e) ko .....aren .....(a)

Sinadura

**II. ERANSKINA. BALORAZIO AUTOMATIKOAREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN PROPOSAMEN-EREDUA.**

Izen-abizenak.....  
.....helbidea ..... posta kodea  
..... , NAN zenbakia ..... , telefonoa ..... , helbide  
elektronikoa ..... , zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.  
Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak  
..... Helbidea  
..... Posta kodea ..... , telefonoa .....  
NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa denaren arabera)  
..... , ..... kontratatzeko  
asmoz .....k dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte  
hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA: 1. Hitz ematen dut  
kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, gehi  
..... €, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Prezio horren  
barruan sartzen dira gastu guztiak, garraioarena barne.

2. Kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere ezagutzen ditudala. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3. Ordezkatzen dudana enpresak bere irekierarako, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....n, 20.....(e) ko .....aren .....(a)

Sinadura

3. Ordezkatzen dudan enpresak bere irekierarako, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....n, 20.....(e) ko .....aren .....(a)

Sinadura



### III. ERANSKINA

#### SUBROGAZIOAREN BARNE DAUDEN LANGILEAK

##### 1.Langilea

- Lanpostua: dinamizatzailea eta koordinatzailea.
- Antzintasuna: 2009ko martxoaren 23<sup>a</sup>.
- Jardunaldia gaur egun: (Eginkizun hauei dagozkienak) %50.

##### 2.Langilea:

- Lanpostua: begiralea.
- Antzintasuna: 2014ko irailaren 8a.
- Jardunaldia gaur egun: %50.